



Gaztelaniazko *por* preposizioaren interferentziak.

POR guztiak ez dira -GATIK

Por (egilea) + esaldi pasiboa > ergatiboa

- UPV/EHUko ikertzaile talde batek egindako esperimentua...

- *UPV/EHUko ikertzaile talde batengatik egindako esperimentua...

Esperimentua ez da ikertzaile talde horren erruz egin.

- Urteko kontuen orrialde guztiak idazkariak sinatuta aurkezten dira.

- *... idazkariarengatik sinatuta...



Por banatzailea > bakoitzeko, -KO

- Muga-denbora gaindituz gero, 0,25 puntu kenduko dute segundoko / segundo **bakoitzeko**.

- *Muga-denbora gaindituz gero, 0,25 puntu kenduko dute segundo bakoitz**agatik**.



Por biderketan › *BIDER*, -Z, -EKIN

- Bi **bider** hiru, sei.
- A balio guziak biderkatzen dira 0,5etik beherako konstante batez/**batekin**.
- **A balio guztiak biderkatzen dira 0,5etik beherako konstante bategatik.*



Por zatiketan > -Z, -EKIN

- Azken hamar balio horiek batu egiten dira, eta batura 11z zatitzen da.
- Ekuazioaren bi zatiak b-**rekin** zatituko ditugu.
- *Ekuazioaren bi zatiak b-**gatik** zatituko dugu.



Por galderan › -aZ, -RI BURUZ, -eN GALDEA

- **Zutaz** galdetu zidaten.
- **Zuri buruz** galdetu zidaten.
- **Zure galdea** egin zidaten.
- **#** (...) **zugatik** galdetu...



Por > -en ORDEZ, -en LEKUAN...

- Zure **lekuan** joango naiz bilerara.
 - **Zugatik* joango naiz...
- Subjektu bakoitzaren **ordez** puntu bat jar dezakegu.
 - **(...) puntu bategatik* ordezka...
- Trajanoren estaua San Pedroren estatua bate**z** ordezkatu zuten.
 - **(...) estatua bategatik* ordezkatu...



Por + erosi, saldu...> -(t)AN

- Zenbatean erosi duzu auto berria?

- *Zenbategatik erosi...

- Metro koadroa 3.390 euroan saldu da batez beste urtarrilean.

- *Metro koadroa 3.390 eurogatik saldu...

Por + erosi, saldu...> -(t)AN

- Ordenagailua 30 euro**an** dago salgai.
 - * ...30 euro**gatik** dago salgai.
- Ikasleek 55 euro**an** alokatu dute etxea.
 - * ... 55 euro**gatik** alokatu...
- Lanak 2,39 milioi euro**an** esleitu dituzte.
 - * ... milioi euro**gatik** esleitu...